

Anttoni Larringan Bastida
Berriz, Bizkaia (1906)

Aurkibidea

Biografia

1906. urtean jaio zen Sarria auzoko Sarribeitia ("Beitidxe") baserrian. Bera jaio eta ordu erdira ama hil zitzaion eta aita hiru umerekin geratu zen. Anttonik bi urte zituela, aita berriz ezkondu zen. Mallabira bidali zuten umetan eta Berrizko markesek, Aznar familiak, ordaindu ei zuten bere heziketa. 11-12 urtegaz Eibarrera joan zen umezain. 17 urterekin etxera itzuli zen eta handik lurretara joan zen neskame. Gerora hainbat tokitan aritu zen lanean Durangon. Bere gazte denborako bizimoduaren eta mitologia eta sineskeren berri ematen du 1980ko hamarkadan egindako grabazio interesgarri honetan. Bere biloba da elkarrizketatzaileetako bat.

Zintak

BRZ-007

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 47 min

- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Mendiola, Aitzol

BRZ-008

- **Proiektua:** Fondo partikularrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 48 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Mendiola, Aitzol

Pasarteak

1. Sarria auzoko Sarribetitia baserrikoa

- **Erref:** BRZ-007/002
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:00:27. **Bukatu:** 00:01:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Sarrikoa da, Andikoatik Garaira bitartean dagoen auzokoa. Bere baserria, Sarribetitia, non dagoen. Inguruko baserri askok dute "Sarri" hasiera.</p>

Transkripzioa

- Zer esan biher naben; zu Andikoakue zara?
 - Bai, Sarrikue. Andikoatik Garaixera dagueu etxe batzuk, Andikoatik Garaixera [...], hantxe bittarteko Sarrikue.
 - Ze basarrikue edo?
 - Sarribetidxe.
 - Ez dakit, han erreka ertzien dagueu edo?
 - Ez. Handik San Salbadorrera ailegau ezker bista-bistan dago. Montor-montorrien. Erreka artien dagueu bajutxuago dago. Eta gurie goi-goixen, holako basarri bat; basarri bat ez, bat, bi, hiru, lau, lau etxe. Lau basarri.
 - Andikoara bidien edo? Garaitik Andikoara bidien?
 - Ez, bai, hori, Garaittik Andikoara bidien. Montor-montorrien.
 - Ha ezagutzen dot, han artatza bat dago inguruan, artiek edo...
 - Bai, baiña Sarridxe, Sarridxe esaten [da], Sarribetiti, Sarriamatza, Sarriortuzar, Sarrigoti, lau etxe.

2. Bera jaiotzean, ama hil; bizimodu pobrea

- **Erref:** BRZ-007/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:01:46. **Bukatu:** 00:03:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Anttoni jaio eta ordu erdira ama hil egin zen. Anaia nagusia, bera, eta umerik ez zutela izango uste zutelako gurasoek ekarri zuten beste ume bat geratu ziren aitarekin. Anttonik bi urte zituenean, aita berriz ezkondu zen. Bizimodu pobrea izan zuten. Txahalen bat saldutakoan, oinetakoak erosteko dirua izaten zuten. Hamaika urterekin neskame joan zen.</p>

Transkripzioa

- Kontau ia... zuek, ume sasoién ta, zer? Ba, ez dakit ba, olgetan-ta ibiliko ziñien ta... ez?

- Asko ez, ume!

- Ez? Biherra orduen, ez?

- Beti biherra. Esango dotsut, hara: neu jaidxo nitzenien, handik ordu erdire nire ama hil zan. Eta aitte geldittu zan, ba, alargun. Eta geldittu gintzezan neure neba nagusidxe, Martzelino, ta neu, ta beste bat, errekogidute euki abiena. Pentsetan abien ez abiela eurek familidxarik euingo eta ba, [...]. Nik urte bi euki nabezanien, aitte ezkondu zan barrido, beste Larrabetzuko bategaz, ta gure bizimodue izen zan, [... emoten oskuezenien ta] dirurik be ez geunken ta... danak pobriek eta pobriek eta pobriek eta [...]. [Hantxe] bizi izen nintzuan.

- Eta...

- Ezebez! Aitte ta ama be pobriek izen zien ta... Behidxek txahaltxo bat hazi, ta haxe saltzen abienien, ekarten eben hona Durangora, ta haren diruaz abarketa batzuk edo zapata batzuk-eta erosi, ta hantxe bizi, harik eta nere nebie, haunditxuaué izen zanien, harek be eitten eban biherra, kanteretan ta baserridxetan ta kridxau ta ibiltzen zan, ta haren dirutxuaz, bizi. Hamaika urtegaz nik urten neban kridxeda, ta holantxe bizi.

3. Neskame lanetan ibilia; ama ezkongabea

- **Erref:** BRZ-007/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:03:44. **Bukatu:** 00:05:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Hamaika urterekin lurretara joan zen neskame, Kapanagarenara. Gero handik Madalenara. Ezkongabea izanda, alabatxoa eduki zuen. Bi urtean amaetxean egon zen, umea hazi arte. Gero, Durangoko abadea zen on Jesusek eta haren neskame Bonik hartu zuten etxean. Fabrikan lan egin eta umea hazi behar.</p>

Transkripzioa

-Nun egon ziñen kridxeda?

-Egon nitzen lurretako zubidxen onduen, Kapanaganien. Eta gero Madalenan be bai egon nitzen.

-Zer palazixon baten edo...?

-Ez. Kapanaganera, zera, arotz bat izen zan. Arotza. Baiña ama alargun euki eban ta, hantxe ta hantxe. Gero handik etorri gintzezan ta Madalenan, Madalenako ermittien onduen, hortxe beste urte batzuk. Eta gero, ba, neskaturie izen neban, solteratan, zerien daguena, San Fauston daguena, eta gero orduen ba...

-Hori, zer da Ibanen...

-Ibanen amama, bai. Marialuisa. Gero haregaz egon nitzen, ba, idxe urte bidxen maternidadien, pixkat bera hazi artien, han egon nitzen. Gero etorri nitzen, ha itxi han, ta biherria eta etxie topetan. [...]. Topau neban etxie, ba, lagun batek, hangoxe Sarriko Don Jesus, ezautuko zendun zuk Don Jesus, abadie?

-Durangokue?

-Bai.

-Ez, ez dakit.

-Oindiño ez da... ez da asko, denpora asko, hil dala, Santa Anako abadie, Don Jesus.

-Nik gaztiago bat bai, zelan deko harek izena... Katekesisa-eta emoten abena... Zelan zan ha?

-Don Jesus Santa Anan egon zan ta harek euki eban kridxada bat, Boni izena eukena, Boni, ta beren amak lantxerik zaintzen eban, beran aman moduen. Eta harexek errekogidu nindun etxera eta hantxe hazi neban umie. Biherria ein ta fabrikatik etorri ta eroan umie ospitalera ta gero eberdidxen barrido errekogidu ta...

4. Hodiak egiten Durangoko lantegi batean

- **Erref:** BRZ-007/006
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak

Laburpena:

<p>Durangoko lantegi batean ibili zen beharrean. Hodiak nola egiten zituzten azaltzen du. Brea ematen zieten eta beltz-beltz bukatzen zuen. Hamar urte egin zituen han.</p>

Transkripzioa

-Ze fabrikan ibili ziñen, ba?

-[Alemanenien].

-Zer zan hori? Zer eitten abien?

-Zerien daguena, han Matadero onduen daguena...

-Oindiño be badago?

- Bai, "tubos aislantes"... puf! "Tubos aislantes"... puf! [...] hauxe baiño baltzao plantau nitzen... Eitten neban biherria, ba, breagaz, ta alkitranagaz, ba, tuboak zulo batetik sartu... Lehenengo papelaaz eitten abiezan tubuek, ez dakizu?

- Papelaz tubuek?

- Bai, papelaaz eitten abiezan, papel senduaaz, ta gero forretan abiezan hojalatiegaz, bertan fabrikan. Baiña papelaaz egin ta forrau orduko, pasau biher izeten zien breagaz eta alkitranaaz, gogortzeko. Ostantzien...

-Apu bat hartzeko, zera...

-Gogortzeko. Eta harekek pintetan. Hamar urtien edo egin nabn bihera han.

5. Eskolara batere ez

- **Erref:** BRZ-007/007
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Eskolara egun baten bakarrik joan zela dio, baina Berrizerraino joan behar eta ez ei zen iritsi. Gerora Andikoa auzoan egin zuten eskolatxo bat eliza inguruan.</p>

Transkripzioa

-Ta eskolarik-eta eze be ez?
-E?
-Eskolarik eta ez eze be?
-Eskolarik bapez! Egun baten jun nitzen ta ez nitzen aillegau; handik Berrizera jun orduko...
-Berrizera juten ziñien?
-Berrizera. Ta ez nitzen aillegau egunez ta ba...
-Ta zenbat kilometro, ba, zenbat kostatzen zan ha? Zenbat ordu oiñez?
-Ba, pertsona nagusidxe beren pausuen, ordubete pasautxo.
-Eta zu zelan juten ziñen, astuaaz edo? Oiñez?
-Oiñez! Eta gero Andikoan egin abien eskolie, gero Andikoan egin abien eskola txiki bat, eta, Andikoako elizie, ezautuko dozue zuek...
-Bai, bai.
-Maite eta Jose hantxe ezkondu zien, Andikoan. Egin abien elizatxo bat eta gero eskolie be bai ta, gero beste modu baten.

6. Amabirjinak Andikoako eliza gurutze ondoan gura

- **Erref:** BRZ-007/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Beti ezagutu du eliza Andikoa auzoan. Atzerago gurutze bat zegoen eta esaten zuten Amabirjinak eliza han egitea nahi zuela. Langileek egunez ekarritako harriak gauez hara eramaten ei zituen Amabirjinak. Egun batez Amabirjinak "karretero"ari (gurdizainari) hauxe esan zion: "aida zuridxe, aida gorridxe, horri begire daguen horri atara begidxe"; esaera horrek familia bati nola eragin zion.</p>

Transkripzioa

-Elixie, baiña, lehendik egongo zan han, ez?

-E?

-Elixie lehendik.

-Bai, nik ezautu orduko. Andikoako elixie izeten zan [...] esate abien, han atzeratxuago, gurutze bat, ta Amabirjiñiek gure izen ebala han egin elixie. Esaten abien zaharrak, gure aittek eta. Eta herridxe gure izen ebala beheratxuago egin, ointxe daguen lekuen.

-Gertuago egon dedin.

-Bai, beherago. Eta Amabirjiñiek, obreruek egunez ekarten eben harridxe, Amabirjiñiek erueten ebala harexen kurutzien ondora. Horrek kontuek izengo die horrek, e?

-Bai, baiña...

-Eta egun baten esan eutsela, karreterueri esan eutsela: "aida txuridxe, aida gorridxe, horri begire daguen horri atara begidxe" esan eutsela Amabirjiñiek. Eta gure etxien aldamenien beti egon zan bat begidxe falta ebana.

-Jesus!

-Bai. Beti egon zan begidxe falta ebana. Eta matrimoniñuek euki abien lehenengo... matrimoniñuek euki eban, ba, seme bat bakarra euki abien. Eta egun baten kuman itxi umiori eta, ba, eurek solora juen zien. Esaten abien, e? Solora juen ziela. Eta etorri zienien, umiek begidxen anpolla bat euki ebala. Eta harexe anpollie zer zan, begidxe galdu jakon mutikueri. Hangoxe etxekuek, esaten [abienak] "aida zuridxe, aida gorridxe, horri begire daguen horri atara begidxe" esan eutsiela Amabirjiñiek. Hori be kontua izengo da, e? Pentsetan dot nik kontua izengo dala. Baiña han etxien beti egon zan tuertue.

7. Filmeko trenarekin beldurtu zen Eibarko zineman

- **Erref:** BRZ-007/010
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

<p>Hamaika-hamabi urterekin Eibarrera joan zen Berrizko parrokoaren lobatxoa zaintzera. Berak umea zaindu beharrean, umeak zaintzen ei zuen bera. Lehenengo aldiz zinemara joan zenean, pelikulan azaltzen zen trenarekin beldurtuta, zinematik alde egin zuen. Eibarren erakutsi ei zioten bizimoduaren berri. Hamazazpi urtera arte egon zen han. Gero, etxera itzuli eta lurretan egon zen neskame, Kapanagarenean.</p>

Transkripzioa

-Zu zenbat urtera arte egon ziñen Andikoan, bueno, Sarridxen, bizitzen?

-Nik zenbat urte [euko nebazan], ba, hamaika, hamabi edo holakoxen bat. Ni gazterik hasi nitzen, esan dotsut, ba, lehenengo-lehenengo, Berrizko parrokuak euki eban... Berrizko parrokuak euki eban anaidxa bat Eibarren. Eta harek euki abien ume bat. Eta harexe zaintzen eruen nindduen, haraxe, Eibarrera. Eta neuk umie zaindu biherrien, umiek neu zaintzen nindduen. Egun baten, lehenengoz zinera juen gintzezanien, ba, berak

esaten [ostan]: “hamentxe aurrien, hamentxe aurrien ikusiko dogu, hamentxe aurrien ikusiko dogu —eta ez nitzen ni sekula zinera juen ta— hamentxe aurrien ikusiko dou, hamentxe aurrien ikusiko dogu”. Eta, bueno, ba! Argittu zan tren bat pelikulan, eta neri buruen sartu jatan oso-osuen geuana datorrela...! Itxi umiori bertan eta urten neban kanpora! Ta danak, jente guztidxe... Ta nik ez naben begiratzan nor daguen be! Orduxerarte ez naben ikusi persona dezenterik eta Andikoako puntan iñor ez! Eta han esaten ostien: “Egon geldi! ez dator zeugana! Ez dator zeugana!”. [Eta nik atzera begiratu trenari], eta ene Jangoiko laztana! Kanpora. Ta itxoin notsan mutiko horri zineko atien kanpun. Ta holantxik jun nitzen. Gero ugezabak eta etxekoandriek eta esplikau ostien. Durangoko... edo Berrizko parrokuaren anaidxie bazan eta jente ona be bai, jente zera, eta harek esplikau ostien bizimodue zelan zan, ta, ba, trenak [holako lekuetan urten] ez dabela eitten eta konejuek be urtetan dabiela eta ez dakit eta, baiña... ordukoxe bizimodue! Aitzen dozu? Eta mutil horrek erueten ninduen etxera, eta neuk mutikue zainddu biherrien berak zaintzen nindduen neu. Ta horixe bizimoduori. Eta zenbat urte eukiko nebazan? Hamaika-hamabi goidxe jota hara juen nitzenien, eta gehidxago kridxada! han egon nitzen ni, ba, hamazapi urtera artien egon nitzen Eibarren. Eta gero handik etorri nitzen ta etxien, klaro, falta, ez dakit ba nora [...] aitte [...] operaziñue eindde [...] Galdakanon ta... Galdakanon, Basurton edo... zeren baten. Ta, ba, etxie be ganoraz zaintzeko falta eitten nebala eta ekarri nindduen etxera, eta, ba... Gero hasi nitzen hamen, hona etorri nintzen, lurretara, Kapanaganera, lurretako zubi... Oin ha etxie botata dao, han, Etxebarrian [...].

-Ze... zubi? A! Etxebarrian...

-Etxebarrian kaliekin onduen egon zan. Kanpanagana, arotzeridxe euki eban. Eta holantxik. Eta handixik bizimodue aurrera atara.

8. Aznar familiak ordaindu zuen bere heziketa

- **Erref:** BRZ-007/011
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bera jaio eta minutu gutxira ama hil egin zen. Amamak oilo txabola eta ortua zeuzkan eta perrexila saltzera joaten zen Berrizera. Aznar familia aberatsak Mallabira bideratu zuen Anttoni eta bere heziketa ordaindu zuten. Etxera itzuli zenean, aita berriz ezkondu eta zegoen eta beste mutikotxo bat zuten.</p>

Transkripzioa

-Zuk amamarik eta aittitterik eta ezautu dozu?

-Bai... amama ezautu neban, ta bastante denporan, nere amen ama. Nere ama hil zan neu jaidxo ta miñutu batzutara. Baiña amamak euki eban honakoxe oilo-txabolatxo bat, ez dakizu? Eta holakoxe txabolatxo bat, euki eban, eta haxe sala hau lakoxe, zezer handitxuago edo, ortutxo bat. Eta perejila eukitten eban han, zerien. Eta perejila batu, eta txortatxuek egin eta jueten zan Berrizera, perejila saltzen. Ta Berrizen, ba, medikuek eta,

Aznarrena... Aznar oin ez dakit bizi dan... baiña Aznar...
 -Hori ezauna egitten jat. Medikue, ezta?
 -Medikue ez, Don Jose Luis zan medikue. Baiña Aznarrenak bizi zien han, aberatsak. "La marquesa de Berriz"?
 -A!
 -Bai...
 -Haren etxie dotoriena, harek ezautu...
 -Harek hazi nindduen ni... harek bieldu nindduen Mallabire, zelan ama barik geratu nitzen jaidxo ta segiduen, ta harek pagau ninduen haztie Mallabidxen, [basarriren baten]. Eta, gero, ba, etorri nitzenien, handi ekarri nindduenien, aitte ezkontute egon zan ta mutiko bat euki abien, [nausidxe], euki abien mutiko bat eta...

9. Amamaren bakardadea; amaordea gogorra

- **Erref:** BRZ-007/013
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:16:44. **Bukatu:** 00:18:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Amaren aldeko amama bakar-bakarrik egoten zen. Berak diru pixka bat ematen zion neskametzatik etorritakoan eta auzokoei ere esaten zien esne apurren bat emateko. Amaordea gogorra zen bere umeeekin eta are gogorragoa beraiekin eta amamarekin. Guztira zortzi neba-arreba izan ziren eta familia hazteko dirurik ere ez eta...</p>

Transkripzioa

-Eta, holan, relaziñorik-eta amamaaz-eta euki bai?
 -Bai, amama, amama koittae, nere amen ama, egoten zan, bakarrik, bakar-bakarrik, honakoxe kuartotxo baten, [...] bakarrik. Eta, ba, ni kridxadatzatik edo etxera jueten nitzenien, ba, emoten notsan diru pixkat eta esnie be han auzokuek-eta emoten otsien ta esaten notsen emoidxozu ta, ba, neuk pagauko dotsut. Eta, gero, gure madrastie pixkat okerra izen zan. Gogorra. Berenentzako be bai ta guretzako gogorrague.
 -Berenekin be bai?
 -Berentzako be bai. Beren semientzako be gogorra izen zan. Eta gero euki be ein ebazan, zortzi bat edo, familidxen. Bost aizta. Bost aizta bizi gara oindiño. Eta Vitoridxen bizi zan beste neba bat, sei, ta hamen hil zana zazpi eta Martzelino zortzi. Zortzi neba-arreba. Harek hazi egin biher zien! Eta diru bako etxiek [...].
 -Solorik-eta asko eukin be ez, igual...
 -Bai, soluek bai, baiña soluen be, egin ezik ez dago!

10. Aitak ikatza egiten zuen Oiz mendian

- **Erref:** BRZ-007/016
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:18:44. **Bukatu:** 00:19:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Aitak ikatza egiten zuen Oiz mendian, amaordeak han zeuzkan lur sailetan. Haritza zegoen asko. Oiztik Garaira "karretero"ak (gurdizainak) jaisten zuen ikatza, handik Durangora kamioian eraman behar, Astapera orduko... Lan asko eta irabazi gutxi.</p>

Transkripzioa

-Gure aittek eitten eban iketza.
-Bai, e? nun?
-Egur-iketza, han, Oizen.
-Oizen?
-Amaordiek euki aben han basue. Amabirjiñien basue, honenbeste pagetan eban ermandadan. Ba, pagetan eban, Martzeliñok be laguntzen otsen, eta eitten eban iketza, egur-iketza.
-Eta ze arbola dagoz, ba, Oizen? Oin askorik be ez dago...
-Oin... ez dakit. Orduen egongo zien, zeretik,...
-Pague [...]?
-Pague ta haretxa asko. Haretxa be asko. Behintzet eitten abien, hiru bider edo, [esaten abien]. Baiña zer pasetan jakon? Oiztik Garaire karreteruek bajatu biher. Eta Garaittik Durangora kamioien bajatu biher. Eta hamendik Astapera erun orduko [iketzak jan]. Gizajuek bihera eitten eban, baiña [azkenerako iñok jaten otsan eta beti pobre]. Horixe.

11. Amamaren bizimodu tristea

- **Erref:** BRZ-007/017
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:19:51. **Bukatu:** 00:22:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Amama bakar-bakarrik egoten zen. Sorginen eta lapurren kontuak kontatzen ei zituen beti. Euren ama zuen alaba bakarra eta bera gazterik hil zitzaion. Oilategi antzeko etxe ziztrin batean bizi ei zen, gaur egun txakurrak ere biziko ez liratekeen lekuan. Ezkaratzera artoa botatzen zion, hura urkuldu eta errotara eramanda diru pixka bat lor zezan. Txorokilekin (lokotxekin) sua egiten zuen. Hileta ere oso pobrea izan zuen; Berrizko markesak (Aznar familiak) ordaindu zuen.</p>

Transkripzioa

-Eta zuen amamak konturik-edo kontatzen otsuen? Lehengo gauzak eta lehengo kontuek-eta kontetan abezan zuen amamak?
-Gure amamak? Harek koittauk... Sorgiñek eta lapurrek eta sorgiñek eta sorgiñek eta lapurrek eta... besterik ez eban eukitten koittauk. Zaharra be bazan, ta bakarrik eta... [...] eta... Jesus, maria eta jose, harek eukin eban bizimodue... tristie... tristie... Koittauk bakar-bakarrik. Seme-alabak, nere ama euki eban bakarrik.
-A! bakarra zan zuen ama?

-Nere ama bakarra zan. Nebie. Eta ostantzien bakarrik. Tristie. Lehenako bizimodue tristie da. Bakar-bakarrik bera hantxe. Honako tximini zera bat euken gora, gora jueteko keiek urtetako... Jesus! Etxiek ez dakit zelan [ez eban]... Etxie be izen zan desgraziadu bat, dana bentanak... [...] eta danak... Eta ikusten gendun amama pobre, pobre, ba, ez eukela [...], botaten notsan nik artue. Aitteri ta amari kendu artue, ta bota handik zuloatik.

- Nora?

- Ezkatzera, bera eguen ezkatzera. Koittaauek urkuldu artue ta txorokillekin sua ein, txorokillak, barruen... artuen barruko zera?

- Bai, bai, bai.

- Ta artue saldu ta, ba, pixkat errotara eruen, ta diru pixkat hartzen eban, ta holantxik. Hari be lagundu ein biher ba! Holantxik. Gure amama [...] barik juen zan, koittaaue. Ezkatz... oillotokidxe lakoxe etxe triste baten.

-Asko aldatu die gauzak, e?

-E?

-Asko kanbidxau die gauzak...

-Oin ez dago txakurrik be ez halako lekuen. Txakurrik be ez. Ohie be triste-triste bat, bentana txiki-txiki bat hantxe ta, azkenien ba...

-Ohie be edozelangu izengo zan, bedarraaz eindako ohie edo...

-Bai, bedarra edo ez dakit [zerezkue] zan be! Eta hantxe, koittaaue. Azkenien ez dakit eze hilda ez abien topau. Ni Eibarren egon nitzan kridxada eta handik etorri nitzenien abisau ostien entierrurako ta. Total, lau oholeaz eindde kaja zahar bat, ta entierrue be, ba, Berrizko Markesiek-edo pagau eban entierrue. Orduko bizimodue tristie izen zan, ba. Orduko bizimodue?

12. Auzoko gizon bat txabolan preso

- **Erref:** BRZ-007/018
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:24:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Auzoko gizon bat zoratu egin zen eta oilategi antzeko txabola batean eduki zuten preso, beste inora eramateko dirurik ez zutelako. Behin Anttoni ondotik pasatu zen eta ogia eskaini zion. Hurbildu zenean, ileetatik oratu eta sekulakoak eman omen zizkion. Azkenean txabolatik ihes egin eta bere burua errekarra bota zuen. Gaur egun ezin da sinistu orduko bizimodua nolakoa zen.</p>

Transkripzioa

Ez dakit zuk ezautuko zendun, `Onbe´ esaten otsien, `Onbe´, zoratuta euki abena... Familidxie, herentzidxaatik edo... Zoratu ein jakozan mutillek be danak. Ta euki abien, ez dakizu, oillotokidxe? Zoratute egon zan, bai? Ta pagau ezin haren zera, ta euki abien holakoxe zertxo baten, ba, [oholekin] egindde, euki abien gizonori, hantxe preso, ba, kanpuen ezin leikiela euki libre ta. Ta egun baten handixik pasau nitzen ganauekin, ta esan osten: "Anttoni, hona etorten bahaz, ogi zati bat emongo deunat /emongounat/". Ta, ba, orduen, ba, ogidxe oin pastela baiño zerago izeten zan, estimauago.

Juen nitzan, heldu ostan handixik bentana ertzetik ulietatik... niri emon ostan palizie! Eta holakoxe zera... Azkenien eskapau euan zeretik, handik kaidxolatik egun baten, ta bota eban bere burue errekarra, eta ez dakizu zelako bakie ein eban gizajuek, beretzako eta auzo guztidxentzako. Oin horrek holan pasau ezker? Amabirjiña Kontzeziñokue...! Eske harek gauzak oin siñestu be ezin leikez ein. Harek gauzak? Egun guztidxen bihera ein, gabien madrastiek "tan-tan-tan" taluek, harik eta... uzkurtxo bat [...] ez zan aillegetan gehidxago...

13. Durangoko lehenengo bonbardaketa

- **Erref:** BRZ-007/019
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:27:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Durangoko lehenengo bonbardaketak laietan harrapatu zituen. Alaba nagusia ohean laga zuen. Ohe azpian sartu zelako salbatu omen zen. Jende asko hil zen bai goizean eta baita arratsaldean ere. Hegazkinak behe-behetik etorri ziren arratsaldean, jendea metrailatzen. Orduko bizipenak.</p>

Transkripzioa

-Gerrak zu nun harrapau zinttun?

-E?

-Gerriek zu nun harrapau zinttun?

-Hamentxe, Durangon. Esango dotsut nun harrapau ginttuzen lehenengo bonbardeuek. Laidxetan ibili gintzezan, hortxe kanposantu aurrien bada, ba, montor bat? Kanposanture doiena hamendik han Kurrone ondora, Kurrone etxie, [...] Hantxe ibili gintzezan laixetan. Eta alabie, bizi nitzen hamentxe zerien, ta alaba nagusidxe itxi neban ogien, neu laidxetan juenda. Ta etorri zien zerok, abioiok, ta hasi zien botaten, ta [hortxe sartu] gintzezan. Gure neskiek, hor be dana bota abien, dana apurtu, ta gure neskiek urten ta ogepien sartu, ta harekek salbau eban. Baiña hor hil zan... negargarridxe! Kurrone etxie, jakingo dozu, Kurrone?

-Ez dakit, ba, hor, zererantza igoten, Kanposanturantzaz igoten?

-[...] igo baiña lehenago, basarri bat badao, ba, harutz goiezela, ezkerretatik? Kurrone esaten dotsiena.

-Baiña basarri-basarridxe ala halako etxe bat?

-Fabrikien onduen.

-A, bai, bai,

-Haxe basarridxe Ba hantxe sartu gintzezan, baiña halan ta guzti be, hari bota otsien atze guztidxe, eta hor sartu genduzan. Arratsaldien, ba, ez geunken hamen etxerik, nik be etxie botata neuken, ta hamen etxiok danok zertute ta bildurra be bai, ta arratsaldien juen gintzezan atzera, ba, harexe egongo zala, Kanposantue, errespetauko dabiela ta ez dabiela botako, eta juen gintzezan horraxa danak, horraxa aldera. Etorri zien arratsaldien, behe-behe-behe-behe-behe-behetik, hasi zien amatralletan...! Personak [...].

-Abioiak?

-Bai. Zenbat jente! Ta goizien, goizien hamen, zer harrapau abien! Tristie haxe zan. Tristie gero! Honek, Olea, [...] hortxe behien bizi zienak, hari hil

otsiezan mutil bi ta aitte. [Bota otsiezan] etxien. Mutillek koskondute, eskolan ebizenak. Gauzak lehen tristiek ibili die.

14. Jaietan gazta eta ogia hartzeko zain

- **Erref:** BRZ-007/020
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:27:29. **Bukatu:** 00:28:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

<p>Lehen ez zegoela poztasunik dio. Gaur egungo osteguna gehiago omen da garai bateko jai eguna baino. Andikoan Asentzio egunean egoten zen erromeria. Amabirjinaren egunean gazta eta ogia banatzen zituzten eta ilarak egoten ziren hura hartzeko!</p>

Transkripzioa

-Poztasunik be egongo zan ba!
-E?
-Poztasunik be egongo zan, ba.
-Poztasunik bapez.
-Bapez? Jaidxek edo...
-Bai... Oingo eguena gehidxago zan orduko jai haundidxek baiño. Oin hamen, hor deket Karretona, hor aurrien, ta oin goizeko seiretan hori itxi barik egon da. Lehena izen balitze, danak kartzelara.
-Bai, baiña ez dakit, Andikoan be egongo zien...
-Bapez!
- ... jaidxek edo. Hori, Asentziño egunien...
-Bai, Asentzidxo...
-Asentzidxo egunien edo...
-Asentzidxo egunien. Eta emoten abien Asentzidxo egunien...
-Erromeridxe edo...
-Bezperan, bai, tanboliñe. Eta abemarikuek joten abienien, etxera listo. Bestelan danak inpernure. Oin haixe be desaparezidu. Emoten oskuen gaztaia ta ogidxe, Amabirjiñien egunien, Amabirjiñiek kunpliduaz, honakoxe ogi txatal bat ta honakoxe gaztai txatal bat. Eta haxe hartzen danak estimau! Kolie!

15. Etxerik etxe kantuan eta eskean

- **Erref:** BRZ-007/022
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:28:49. **Bukatu:** 00:29:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Etixerik etxe kantuan eta eskean ibiltzen zirenean kantatzen zutena: "Eguen zuriko astie, Jangoikuek emona guztidxe...". Bera ez zen asko ibili, baina nebak ibiltzen ziren. Ematen ez zuenari gurdia gora begira ipintzen zioten.</p>

Transkripzioa

-Kantu-kantari be ez ziñien ibiltten? Holan, ez dakit, ba, abendue kantetan, ta honako gauzak, eguen zuridxe ta...
-Bai! "Eguen Zuriko astie Jangoikuek emona guztidxe, eskola maisuek bidaldu gaitu limosna on baten bille" kantetan genduen, baiña...
-Etixerik etxe?
-... iñok ez eban eukitten [...] emoteko [...] ta...
-Orduen be egongo zan baserri onik! Aberatsik be egongo zan...
-[Afaldu, bai. Afaldu] edo patata bat, edo sagar bat edo, baiña [...errezau] zer eitten gendun, ba? Ezebez! Ni [hor] jun be ez asko biherrien ibiltten nitzen etxien. Baiña gure nebak ibiltten zien, hamen hil zana ta; Martzeliño be ibiltten zan. Eguen Zuriko astie ta Santa Ageda ta...
-Santa Ageda be bai?
-Bai. Emoten ez otsenai burdidxe ipini gora begire, erroberekin gora begire. Zuk emon ezik Santa Ageda, horri emon buelta ta ala! [Erroberakin ipini gora begire].

16. Urteberriko eta Erregenetakoko kantak

- **Erref:** BRZ-007/023
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:29:56. **Bukatu:** 00:30:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak

Laburpena:

<p>Gabonetan ere ibiltzen ziren eskean. Urteberri eguneko kanta. Erregenetakoko kanta.</p>

Transkripzioa

-Eta abendue ta Urtebarridxe ta holakuek be bai?
-Bai, batzen zien. Bai. "Urte barri-barri, deukenak ez deukenari, nik ez dekot eta neri, badekozu emoidazu, ez badekozu, itxixozu, ta emoten ez dabena txarri belarri".
-Ta Erregenetan?
-E?
-Erregenetan?
-Erregenetan be hoixe, atzera be kantau: "Erregen, erregen, kimeletañe, zazpi intxaurre ta zortzi gaztaiñe, apalazioko zaldune, hiru erregen egune, zotzak eta paluek, estudiantien kontuek, estudiantie sasi-sasi, asko jan ta gitxi ikisi". Hoixe!
-Oin be eitten da...
-Bai, baiña oin modernuago, ta beste grazia batekin...
-Soiñuaz eta...
-Bai, baiña lehenago... [...] askotan kirtena edo holako bat [...].

17. Gaur egungo behartsuenak garai bateko aberatsenen pare

- **Erref:** BRZ-007/024
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:30:52. **Bukatu:** 00:33:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Garai batean markesak edo pertsonarik aberatsenak baino hobeto bizi dela gaur egungo miserableena dio. Orduan ere baziren etxejabeak, umeak ordaindutako eskolara bidaltzeko gaitasuna zutenak, adibidez. Baina gosea pasa gabeko gutxi egongo zela uste du. Baserrian txerria hiltzen zen eta harekintxe bizi. Ogia etxean egiten zen hamabost egunerako.</p>

Transkripzioa

-Lehenago Markesak baiño, lehenago aberats-aberatsak baiño, oin miserablerik haundixena hobeto bizi da.

-Bai? Markesak baiño? Berrizeko Markesie ta honek baiño?

-Bai. Ba... Harek be... Bueno, beren etxien ondo biziko zan, baiña... Oin nik jentie aberatsago ikusten dot. Orduen ogi zatidxe botatie pekatu mortala izeten zan, ta oin ikusten dozuz iluntzidxetan zakuen, basurara botateko.

-Baiña ordun be egongo zan etxe... esan gure dot, baserridxetan be aberatsik eta ganau askodunek eta basuek eta...

-Bai, euezan jente.. eukienak, bai, etxaunek eta, errentarik pagau biherrik ez eukienak eta. Horrek bai. Horrek [...] izeten zan. Eukienak, orduen be, eukienak beti [eukiko eban meioratxue], ba, herriko eskolara juen biherrien handik Durangora, pagaute, ta beste modu baten.

-Esan gura dot, biharra, biharra, lehen, asko, baiña baten batzuk, gosie be ez abiela pasauko, orduen sasoi en be...

-Bueno, gosie... pasau bako gitxi egongo zan, e. Oin, ez dot esaten pobrien moduko... badakizu, konparaziñoan, geu zortzi neba-arreba izen giñen, ta, ba, iñor eitteko be ez, ta zertzeko be ez, ta basarridxen bizi zan apurre, urtien txahaltxo bat hartu ta saldu ta harixi begire, beste txarritxo bat hazten bazan... ta danen artien laurden bana edo, txarri laurden bana edo, lauren artien-edo hil ta haixe. Ta morzillak ein ta ein ta ein ta ein ta [...], porrutan ta kipulatan sartzen otsien, sartu ta sartu ta sartu ta sartu. Eta harexekin bizi. Baiña labako sua ein, etxien ein labako sua ta ha ogidxe hamabost egunien edo, begiratu begiratu [...].

-Gogorra egoten zan azkenerako?

-Gogorra egoten zan, baiña... gosientzako gogorrik ez eguen!

18. Amabirjinaren egunean gonbidatuak etxean

- **Erref:** BRZ-007/025
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:33:32. **Bukatu:** 00:34:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Gabonak nahiko polito pasatzen zituzten, txerria edo konejuak hiltzen zituzten eta. Amabirjinaren egunean gonbidatuak izaten ziren baserrietan. Euren amaordea Larrabetzuko zen eta handik etortzen ziren gonbidatuak eurenera. Zer jateko izaten zen.</p>

Transkripzioa

-Ta Gabonetan ta?

-Ez, Gabonetan politto. Hiltten abien txarridxe edo konejuak edo zeozer.

-Gabonetan?

-Bai.

-Ariñago ez, San Martiñetan edo ez?

-Ez, ez. Ta Amabirjiñien egunien be, [...] auzuek erueten abiezan konbidauek. Ipintten abien baba zuridxe txorizuagaz ta sahieskidxagaz ta ipintten abien. Morzilla batzuk be ein, ta manietan zien. Ze gurien be gure ama, madrastie, Larrabetzuekue zan, ta handik etorten zien inbitauek. Etorten zien. Baiña oingo moduen ez! Baba zuridxe, saiheski zatitxo bateaz ta beste oillasko bat edo konejon bat edo hiltten bazan... bazan... baeuen. Ta arrautza tortillie ta eidekue ta aberatsen kontuek! Gehidxen be, arrozkonletxie ein, ta haxe ipini galdarie bete, ta baba zuridxe edo. Garbantzue izeten bazan be, garbantzue lantzien behingo jatekue, erosi eitten zan ta. Lehenago jentie pobre bizi zan, e! jesus!

19. Txerriaren zatirik onenak abadeari, medikuari eta maisuari

- **Erref:** BRZ-007/028
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:38:14. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Andikoa auzoan lau baserriren artean hiltzen zuten txerri bat. Haren solomotxoaren erdia abadearentzat izaten zen. Medikuari eta maisuari ere zatiren bat ematen zitzaien eta geratzen zena lauren artean banatu behar! Hori egin ezean, bekatua izaten zen. Orduan dena zen bekatua eta dena infernua. Beraiek sinistu egiten zuten. Nola aldatu den kontua.</p>

Transkripzioa

-Solomillue, Andikoan gure baserridxetan lauren artien edo hiltten zan txarri bat. Lau basarrik, lehenago, txarri bat hiltzen zan, ezta? Haren solomillue, erdidxe behintzet, abadiantzako. Neure nebie goserik itxi, ta abadien solomillue. Ta gero beste zeozer be, medikue edo, egoten zan beste zeozer, ta maisuari be emon biher, ta, azkenerako, txarridxen gauza onenak harexentzako. Harek, guapo, euzkidxe hartu ta bestiek zelán eitten daben bihera... beinke, orduko gauzak. Eske emoten ez baotsazun, pekatu eitten zendun, ta pekatu ein barik emon ein biher. Ta oin jentie espabilauta dago, e, baiña orduen ez. Orduen dana zan pekatue, ta dana zan inpernue, ta dana zan inpernue. Eta geu be, ba, [susteu]; hango holako lekuten

arimak urten dabiena ta beste holako lekuten kadaberiek urten dabena, bestiek urten dabena, ta inpernuko zera ta dana inpernue ta dana inpernnue. Ta oin desaparezidu die danak.

-Onerako.

-Oin oingo gaztiek errezoiek dekiez; ez dabe siñesten... ta errazoie Guk, bai, danak! Jesus! Trumoi bat izeten bazan, jangoikuen kastigue! Ta halan edo holan edo hiltten zana... “bai, ba, pekatu mortalien bizi zan ta jangoikuen kastigue”.

-Orduen abadietako eta ondo biziko zien, ba, errespeto gehidxago ta euren...

-Ba, esaten dutsut, ba! Txarridxe hiltten zan ta haren solomillue abadietako, Andikoako abadietako, ta maisuentzako, ta medikuentzako. Kendu ixozuz hari hiru zati, zer gelditzen da?

-Eta lauren artien banandu biher.

-Hoixe. Lehenago hoixe zan. Oin jentia... Zoridxonien [...], ostantzien danak gosiek tragauko ginttuzen...

20. Mari Urrika ikusi zuen, suzko buztan eta guzti

- **Erref:** BRZ-007/030
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:43:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Mari Urrikak Oiz menditik Anbotara joan-etorriak egiten zituen udaberrian eta udazkenean. Oiz mendia baino beherago aitarekin iratan zebilela, berak ikusi zuen Mari Urrika pasatzen. Suzko buztan luze bat ei zeukan. Behiak ere beldurtu egin omen ziren.</p>

Transkripzioa

-Maria Urrika...

-Bai, aber, kontau.

-Maria Urrika etorten zan udabarridxen Oizera, ta udaguenien jueten zan Anbotora. Edo aldrebes esan dot? Bueno, ez dakit, hor eitten eban. Eta pasatzen zan.. zer ote zan haxe? Ni sarriten egon naz... ez dakizu, gauza... su bat... luzie... Ta akordetan naz, Oizko mendidxe baiña beheratuago aittaaz, irie ebaten. Irie jakingo dozu... “helecho”, irie. Eta gero etxera ekarteko, kargetan. Ta pasau zan, Maria Urrika esaten otsien, holako luze bat, baiña handik atzetik etorri zan ta, hor, Anbotoko puntako hatxera. [...] hor Oizen atzien ezkutau zan. Behidhek be sustaute [ezkutau ein zien].

-Baiña zuk zeuk ikusitte?

-Neuk ikusitte, bai! Sue, sue! Baiña buztan ta guzti! Ta esaten abien Maria Urrika zala! Gehidxago [...], desaparezidu da ha be. Oin ez da ikusten. Nik esaten dot: ha zer ete zan?! Esaten dot, bakarrik egoten nazenien, ohien lorik ein eziñik edo, “lehenagoko gauzak”! Baiña gure jangoikuek! Zelan edo? Ez dakit ba nik! zelan gauzak kanbidxau dien! Ze ha, ha esaten abien udabarridxen hona jueten zala eta udagoienien hara jueten zala. Eta egun baten neuk ikusi naben, behidhek kargetan, irie kargetan gauzela gurdidxen. Eta sssssssssssssss! Eta hantxe, zeran atzien ezkutau zan! Nik gehidxago ez dot ikusi...

21. Erreka ondoan gauza zuri bat ikusi zuen gauean

- **Erref:** BRZ-007/031
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:43:02. **Bukatu:** 00:46:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Garai batean sorginak irteten omen ziren. Behin berari gertatu zitzaiona. Lehengusinarene izara sasian utzi zuen, erreka baten ondoan. Gauen gogoratu zen han utzi zuela eta bila joan zenean, gauza zuri bat ikusi zuen erreka ondoan. Gainera, mugitu egin zen. Etxera alde egin zuen korrika eta Amabirjinari laguntza eskatu zion. Zer izan ote zen?</p>

Transkripzioa

-Ta sorgiñen konturik edo?

-Bai! Sorgiñek, sorgiñek... Sorgiñek hamen sarriten [urteten] zien. Sorgiñek urten eitten abien. Urten eitten abien zerien... Egun baten lehengusiñien ixera bat eukin nabere erretentxun, [...] erretentxun ure egoten zan, oin desaparezidu da.

-Kanalen bat egoten zan edo holan, ala?

-Bai...

-A! Errekie igual...

-Ha zeretik etortzen zan. Ez dakizu hori... gure semie... zure arrebie bizi dan... ha ure datorrena Tabiratik? Ha baiño beheratxuago eukin harek kanal bat, beste zer bat, haxe ure zan hara juten zana.

-Imazena edo holan?

-Imazen-ta baiño beheratxuagotik, handitxik, Imazen presatik eukin harek, San Frantziskoko mojen atzetik pasetan zan ha ure. Ta egun baten, ba, ixerie lehengusiñiena itxi nabere ta, sasi ganien eskegitte itxi nabere. Eta gabien akordau jaten, ogera juen ta gero akordau jaten. Aiba! Ixerie! Neurie balitze, baiña neurie ez da ta, iñona ixerie, ta bidxer goizien zelan entregauko dotsat nik, ta ogetik jagi ta juen nitzen. Ixerie batzen. Izengo zien ordu bata edo ordu bidxek edo. Juen nitzen. Ta nik ez dakit zer izen zan. Nik ez dakit zer izen zan. Hantxe, errekie onduen, egon zan gauza zuri bat. Honako... holakoxe [...] hori baiño handitxuaoko gauza zuri-zuri bat. Ta eskillarak egozan bajatzeko, ez dakit zu akordetan ziñen, eskillarak egozan erre kara bajatzeko. Ta harekek bajatzen hasi nitzen eta mobidu ein zan gauziori, gauza zuridxori. Emon notsan ariñeketie, ta etorri nitzen etxera —oniño gatzie, zenbat [eukiko...], oingo aldien gatzie—, etorri nitzen etxera, ta Amabirjiñie —hamen gure kajoien, Amabirjiñie— ta harexi esan notsan: “lagundu idazu, lagundu —arnasarik be hartu ezindde—, lagundu idazu, lagundu idazu”. Ta [...] ta ez neban gehidxago ezer ikusi. Baiña ha gauza zuridxe zer izen zan? Eta mobidu ein zan! [...]

-Zer, holako gauza...?

-Bai, holakoxe modukue... txakurre edo ez dakit zer izen zan. Txakurren antzekue, baiña haunditxuague zan. Ta mobidu ein zan [haraxe] eskillarak bajatzen hasi nitzenien.

-Joño, ez dakit ba...

-Bai, bai. Nik ordutixik aurrera, edo... nik ez dakit, nik ez dakit. Norberak pentsau hantxe daola ta, ba... Ez dakit nik, [gau sua] edo nik ez dakit zer izen zan, baiña neuk ikusi nabere [haxe ixerien...] juen, ta bidxamonien juen nitzen goizetik karakoletara [...] zerien, baiña hantxe mobidu zana zer

izen ete zan...

-Ez dakit ba.

-Baiña mobidu ein zan. Edo norberak... norberak eruen abezen /erubazen/ nerbidxuekin pentsau igual. Ez dakit zer izen zan.

22. Arimak, deabrua eta garai bateko sineskeriak

- **Erref:** BRZ-008/001
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Jaungoikoak zeruan onartzen ez zituen hildakoak familiakoei irteten zitzaizkiela esaten zen garai batean. Euren amaordeak deabrua ikusi omen zuen ore-mahaian ogia jaten. Abadeek ere esaten zituzten halakoak eta beraiek sinistu egiten zuten. Batzuek zioten aberatsak izaten zirela izara zuriekin irteten zirenak ilunpetan, jende behartsua beldurtzearren.</p>

Transkripzioa

-Harek urten eitten abiela, Jangoikuek ez dabezela ametiduten zeruen, ta harek, ba, urten eitten abiela, norberan familidxiari edo norberan zerari. Ta guri be madrastriek esaten oskun diabrue ikusi ebala ore-mahaidxen, diabrue ikusi ebala ore-mahaidxen ogidxe jaten. Ta, ba, bildurretan. Abadiak be, horretantxe beti ibiltten zan ta... geure konfesiñuek ta geure zer horregaz. Ta siñistute egon gintzezan sorgiñek eguezana. Ta gero esaten abien jente zera, jente poderosue, engaiñetiarren, sustetiarren jente pobrie, sustetiarren, jantzi eitten ziela, jantzi eitten ziela urtetako illuntasuneko lekure.

-Sustetako.

-Bai. Horreatik, ba, jentie sustaute eukin giñuzela. Eta izen be izengo da. Ze, nik, ez dakit ba...

23. Garia bedeinkatzen zuten San Juan su ondoan

- **Erref:** BRZ-008/004
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:04:56. **Bukatu:** 00:06:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>Garai batean baserrietan inor ez zen geratzen San Juan sua egin gabe. Zer kantatzen zuten. Garia eramaten zen su ondora, bedeinkatzeko, eta gero erein egiten zen gari hura.</p>

Transkripzioa

-Ta San Juanetan ta, zeozer eitten zenduen? Sue edo...

-Bai, bai, San Juen suek ein barik iñor ez zan gelditzen, iñor be ez, basarri danok. "San Juen San Juen, arrautza bi kolkuen, beste bi altzuen, lapurrek eta sorgiñek erre, erre, artuek eta garidxe gorde, gorde, gure soluen lapurrik be ez, sorgiñik be ez, ezebez!"

-Ta sue.

-Ta sue, [etxien]. Harexen bueltan...

-Soluari bueltie edo?

-Ez, harexen suan bueltan, ba, errezau. San Juenien. Oin ezebez... Oin be eitten da hemen, erretentxunien eitten dabe!

-Bai, oin be eitten da. Eta baserri inguruetan-ta eitten da.

-Basarridxen, leku askotan. Baiña orduen? Ta erueten abien, garidxe, gari [...] bat, artue beteta ta [...] erueten abien su ondora, bedeinkatzeko. Gero erein ha garidxe.

24. Erramu egunean gurutzeak egiten zituzten

- **Erref:** BRZ-008/005
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:06:08. **Bukatu:** 00:08:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Erramu egunean gurutzeak egiten zituzten erramuarekin eta ereinotzarekin, bedeinkatu eta soroetan jartzeko. Soroak adina makila erabiltzen zituzten. Nola egiten zituzten. Sorginak uxatzeko izaten ziren.</p>

Transkripzioa

-Ta zuek jarten zenduen hor San Juan inguruen eridxontza arraman bat edo, elorridxe edo?

-Bai, zerien... Hori izeten zan eguen santu... eguen santu edo... "día de ramos", erramu egunien. Bai. Eitten genduzen, ba, zenbat solo geunken, haretxen beste kurutzegidxe esaten gontsen; zenbat solo geunken, haretxen beste makilla zuzen, honen tamaiñokuek, makillak.

-Zegaz?

-Zera, eridxontzen zera, kurutzagidxe. Aparteko zerak izen biher abien, aparteko paluek, horrek paluek [...] aparteko paluek, eta zenbat solo geunken, harenbeste palu eitten zan. Bost solo bageunkezan, bost palu. Eta gehidxago bageunkezan, gehidxago. Eta gero hareri, ba, honan zatitxo bat kendu [alde bidxetatik] ta goiko akaberan, goidxen paluen akaberie baiño beheratxuago, zeraaz, zintzelaaz ein erraidxa bat, batetik bestera zulue, ta hantxe sartu palotxo bat, kurutzie eindde. Hareaz paluaaz eitten zan, beste... konparaziñuen, [hau, ezta, zera?] ta hamendik ein zulue ta palutxo bat sartu ta holan kurutzie ein. Ta ipini, lau zulo bazeunkazen, lau edo bost edo, ipini, ta danak lotu, bueltan-bueltan, goidxen ta behien lotu, ta ipini erromerue ta eridxontza goiko puntan, lotute. Ta ha elizara eruen erramu egunien bedeinkatzen. Bedeinkatu ta, ba, holaxe. Harexek ipini gero, sorgiñek juen ez daittezan soluetara. Ta etxera be bai. Etxien be ipintten zan bentanan baten edo zerien. Ta soluen, ba, bakoitzak bere soluen sartu eta hantxe.

25. San Juanetan lizarra etxean; bedeinkazioetarako ohitura

- **Erref:** BRZ-008/006
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:08:42. **Bukatu:** 00:10:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » San Juan

Laburpena:

<p>San Juanetan lizarra jartzen zen etxean, larrosekin eta San Juan loreekin batera. Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzera nola joaten ziren mutikoak. Baserrietan behintzat ez zen egongo ohitura hori betetzen ez zuenik.</p>

Transkripzioa

-Ta ez zenduen jartzen, San Juanetan edo holan, leixarra edo elorridxe edo...?

-Leixarra, leixarra, atien onduen. Hamentxe be bai hori ipintten zan.

-Eta zegatik hori?

-Ba... San Juen... San Juen zalako larrosen zera, poderosue. Leixarra, leixarra, hiru-lau larrosagaz, ta San Juen lorak.

-Etxie [...]?

-Bai, hamentxe ipintten genduen. Ta geuk be bai. Geuk be bai ekarritte, zerien, ogien, buruko zerien, sarriten. Eta hamen nik kuartuen [be Jesus] ta danok dekogu hamen, ezta? Ta "Corazón de Jesus" en zerien, ba, ipinitte, holakoxe arramatxo bat, baiña ipinitte. Oin ez. Oin bedeinkaziñorik be ez dago. Horrek danok kendu zien, baiña lehenago horrek danok zien. Erramu egunien, Erramu egunien elizara erueten ez ebana ez zan zerekue, elizakue. Eta mutikuek euren paluek erun ezindde barregarri ibiltten zien, Erramu egunien, elizara. Eta han bedeinkatu ta etorri ta, ba, errepartidu solo bakotxien. Han hartu biher izeten zendun ure, ur bedeinkatue, elizan, hartu biher zan botillan. Ekarri ta gero [har bota].

-Ta... mundu guztidxe jungo zan.

-E?

-Mundu guztidxe jungo zan.

-Ha eitten ez zan etxerik ez zan egon, basarrik behintzet. Basarri guztidxetan. Basarriko mutiko guztidxek.

26. Andikoa auzoko Asentzio jaiak

- **Erref:** BRZ-008/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:10:36. **Bukatu:** 00:12:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Bera gaztea zenean, ez zen egoten dantzaririk Andikoa auzoan Asentzio egunean. Serafinek jotzen zuen danbolina. Txibitonek ematen zuen meza. Meza ostean, Amabirjinaren diruarekin ogi eta gazta bedeinkatuak banatzen ziren.</p>

Transkripzioa

-Ta Asentzidxotan Andikoan dantzaridxe ez zien egoten?

-Ez, ez, ez. Oin... Nik handik urten nabenien —oin ez dakit, baiña—, ni egon nintzen zerien, Asentzidxotan, tanboliñe, Serafin. Ez dakit Serafin nungue zan? Abadiñokue edo.... Tanboliñe joten eban. Haxe juten zan. Ta, ba, joten eban Asentzidxo... Txibitonek emoten eban mezie, ta haxe juten zan tanboliñe joten. Ta mezien... Meziek urteten ebanien, tanboliñe, ta Amabirjiñiek emoten eban gaztaia ta ogidxe. Sakristauak, Amabirjiñien diruaaz erositte. Holakotxe ogi txatal bat, pentsaizu, hainbestendako. Ta emoten oskun ta, bueno, haxe, ha ogi bedeinkatue ta gaztai bedeinkatue, gauza haundidxe! Ta gero, ba, illuntzerako, oin azkenerako pentsetan dot eitten ziela, baiña dantzaririk ez. Basarridxe euren juten zienak, konparaziñean hamendik Tabirara jutie lantxerik. Orduen ez zan egon... ezpatadantzaridxe eta horrek, bai, Garaidxen, ta egun haundidxetan ta bai, baiña oingo moduen ez. Orduen ez eguen erropa zuririk eta holakorik. Andikoan ez naben ezautu. Bueno, nik gazterik urten neban handik, e, gazterik urten naben.

27. Garai batean elur eta lei gehiago neguan

- **Erref:** BRZ-008/009
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:17:09. **Bukatu:** 00:19:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Garai bateko neguak gogorrangoak ziren: elur gehiago egiten zuen eta baita leia ere. Teilatuetatik izotz-kandelak egoten ziren zintzilik.</p>

Transkripzioa

-Lehen, nire amamak beti esaten dau, lehen negue gogorrage zala ta...

-Asko be bai! Harek edurrek eta harek leidxek eta...

-Edurra-eta be bai?

-Oin edurrik ikusi be ez da eitten. Lehena? Lehena edurre asko be... jesus! Lehen harek kandelak...

-Bai.

-Ez dakit zuk ezautu dozuzen...

-Bai, bai, bai, bai, teilatuetatik...

- Teilatuetatik-eta kandelak. Ta zerien be, kamiñuen be, kristal eindde dana leidxaaz. Oin ez da ikusten holakorik.

-Ta noz hasten zan edurre ta holan [...]?

-Ba, behin zerera ezkerro, San [...]tarako ta Gabonetarako... jesus!

Gabonetarako ahaztuta egoten gintzezan. Ni makiña bat bidar jun naz hamendik, kridxeda egon hamen ta Andikoako puntara, edurraaz ibili ezindde, ta jun ein biher, gurasuek ikusten-ta juen ein biher. Baiña edurtza galantakin hara puntara [...] abarka haundi batzuk galtzakin... Baina oin ez, oniño Anboton be ez da ikusi edurrik. Oin neguek asko be hobiek dauz.

-Bai, epelaguek eta...

-Bai...

-Lehen hotza be pasau eingo zenduen...

-Ene Jangoikue, jesus!

-Erroparik be askorik be ez eta...
 -Bai, ortozik eta... Hamaika bider nik... hamaika tristeza pasau dou han basarridxen, bentana zahar batzuk, teilatu guztietatik urten ta etxetik kanpora dana leittute ta dana edurre...
 -Kristelik bentanetan eukitten zenduen?
 -Bai, kristela...Oholak.
 -Oholak?
 -Oholak atzetik... Kontrabentanak oholezkuek ta kittu.

28. `Takonesia´ren dendan gertatutakoa

- **Erref:** BRZ-008/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:20:02. **Bukatu:** 00:21:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Durangora neskame joan zenean, etxekoandreak `Takonesia´ren dendara bidali zuen libra bat olio erostera. Berak ez zekien hori gaitzizena zenik eta dendariari berari galdetu zion ea `Takonesia´ren denda zen hura. Zapatilarekin aurrean hartuta, kalera bota zuen.</p>

Transkripzioa

-Lehenengo Durangora etorri nitzenien kridxeda, etxekandriek bieldu ninduen `Takonesie´, `Takonesie´n dendie? [...] hori Aiuntamentuko [aurreko...] hori, estankue eukena?
 -A! Basoa? Basoakue?
 -Ez, ha ez! Hamen zerien, Artekalien, `Takonesie´.
 -Estankue?
 -Estankue, bai, estankue.
 -Lehen ala oin be bai?
 -Lehen be `Takonesie´, hori lehen be `Takonesie´ zan, `Takonesie´n dendie. Ta etxekandriek bieldu nindduen. Hori dendie zan. Ta jueteko horraxa ta ekarteko libra bat oridxo —orduen librie esaten zan ta—, ekarteko libra bat oridxo. Ta juen nitzen, ta fijo ez nekidxen zer zan, `Takonesie´ zein zan. Ta sartu nitzen dendara ta esan notsen: “hau da `Takonesie´n dendie?”. Ta itxurie motie zan izena barik, motie. Hartu nindduen zapatilliegaz aurrien, ta kalera.
 -Hasarretu eingo zan.
 -Motie izen zan ta... Nik jakin izen baneu motie zala, ba, ez [notsen esango], baiña... “Hau da `Takonesie´n dendie?”, “Takonesie?”, ene Jangoiko laztana! Etara niñuen kanpora! Eta holakuek zenbat...!

29. Inauterietan ardi larruarekin eta behien mantarekin jantzita

- **Erref:** BRZ-008/012
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:24:05

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Inauterietan ardi larruarekin eta behien mantekin janzten ziren. Elkar altxatzen ibiltzen ziren. Neskak ere ibiltzen ziren, baina batez ere mutilak. Lehenengo, elizara joan behar, hiru meza entzutera. "Tostada egunean" tostadak egiten zituzten, taloen antzera, erreta.</p>

Transkripzioa

-Karnabaletan zeozer eitten zan lehen?
 -Bai. Bai... eiten zien. [...] eta, baiña ha pekatu mortala zan kareta hori ta jastie.
 -Baiña eitten zan, ezta?
 -Bai, bai...
 -Nik amamari entzunde dekuset jazten ziela ardi narru bateaz ta...
 -Bai, ardi narruaaz ta behidxen mantakin ta... zer? dana... praka barik eta...
 -Zelan praka barik?
 -Aaai! Gona zaharrakin. Tapetan abiezan gona zaharrekin ta... Behidxen, behidxen zerekin, mantiaz eindde dana bueltan-bueltan ipinitte ta... holantxik.
 -Ta zetan ibiltzen zien?
 -Ba, bata bestie altzetan ta...
 -Mutillek ala neskak be bai?
 -Neskak be bai. Neskak gitxi, e? Zegaittik neskak, jazten zienak, kastigauak izeten zien. Ez dakizu? Mutillek jun ta [...]. Mutillek gehidxago izeten zien... Karnabalak beti izen die karnabalak. Ta elixara lehenengo jun biher, hiru meza entzuten: bat sorgiñen kontra, ta bestie, ba, erromeridxe gaberako ta bestie mezie entzuteko.
 -Hiru bider?
 -Hiru meza entzun biher.
 -Zuk beste berbarik ezautzen dozu karnabal esateko? Aratostie edo...
 -Aratostiek, zerak... tostada egune.
 -Ze egun izeten da hori karnabaletan?
 -Karnabalak pasaute. Karnabalak izeten da Eguen Santu inguruan. Eguen santu bezperan, karnabal, ta tostada egune.
 -Orduen eitten zenduezan tostadak?
 -Bai, bai. Orduen, Andikoan, aunke sea arto urunagaz, eitten zien tostadak.
 -Eta rebozaute eta holan, oingo moduen?
 -Bai zera! Ein... erre... tablien ganien...
 -Taluen antzera...
 -Bai.

30. Inauteri ostean, bijilia barikuetan

- **Erref:** BRZ-008/013
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Inauteriak pasatutakoan, bariku guztietan bijilia egin behar. Lapikoak eta zartaginak sutako hautsarekin garbitzen zituzten, koipe guztia kentzeko. Bijilia egunetan arrautzak eta baba zuriak jaten zituzten. Letxuga beti ezagutu du, baina bero egunetan edo gari-jotzeetan bakarrik jaten zen. Domeketako jatekoa.

Transkripzioa

-Gero karnabala, ta eguen santu... karnabalak, bariku guztidxetan bijilidxie. Lapikuek garbittu ariaaz ondo, paderie ta lapikue eta, ondo garbittu surteko hautsaaz, koipie euki ez deidxen, asteko koipie euki ez deidxen, ta gero, ba, bijilidxe eitteko. Surteko hautsaaz garbittu zartagiñe edo, esnie egoteko edo lapikue egosteko ta, euki ez deidxen koipien trazarik, ta jaboiaaz. Oin ezebe ez...

-Eta zer jaten zenduen bijilidxan, barikuetan zer jaten zenduen? Arraiña ez, ezta? Ala?

-Ez, arrautzak. Arrautzak, ba, bijilidxe zan, ta babie oridxuagaz.

-Zelan, babie oridxuaz?

-Bai.

-Zelan? Baba...

-Ba baba gorridxe edo, ba, jeneralien baba zuridxe. Goizien ipini egosten uraz, ta oridxo pixkat bota, ta berakatza, ta kipulie, ta haxe. Eta egosten zienien, eberdidxen, beste oridxo pixkateaz, berakatz bateaz, bota, ta bezkaridxe.

-Letxugarik-eta ez zenduen jaten?

-Letxugie egoten zan, baiña...

-Bai?

-Letxugie nik pentsetan dot beti ezautu dotela. Baiña oingo moduen ez, e? Orduen, ba, jaten zan bero eguenien ta gari jotietan ta [...] eta...

-Ensaladie...

-Garidxe jaten abienien, ba, orduen egoten zan pixkat jentie hobetotxuago. Gari jote egunien be ze izeten zan? egun txarra.

-Gogorra biherra, e?

-Bai, bai, gogorra. Biherra gogorra ta orduen emoten abien jaten orduen pixkat hobetotxuago. Ta domeka arratsaldietan, ba, txorizotxo bat sartu lapikuari, zenbat lagun haren beste zatitxo ein ta baba zuridxe. Domeka gabien haxe, baba zuridxe, zatitxo bana txorizue, ta baba zuridxe.

31. Gabon gauean gordetako ogi zatia ez da hondatzen

- **Erref:** BRZ-008/015
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:27:49. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Gabon gaueko ogi zati bat gorde egiten da hurrengo urterako, gurutzea egin ostean, eta ez ei da hondatzen. Berak beti izan du ohitura hori. Gero, berakatz-zopa egiten denean, ogi zati hura ere bota egiten da.</p>

Transkripzioa

-Eta ogidxe, ogi kuskurre gorde eta...
-Bai, neuk be ondiño gordeta deket Gabon egunekue.
-Eta hori zelan da? Guk sekula ez dogu ein etxien ta...
-Bai, ba, hara: Gabon gabien afaitteko hasi biher dozun ogidxe, harexe ein, ta mosue ein ta kuskurre kendu ta gorde. Ta ha ogidxe ez da urdintzen ta alperrik be ez da galtzen.
-Hori esan dostie.
-Bai, oniño nere armaidxuen egongo da Gabonetako ogidxe, kuskurtxo bat. Ta harek, ba, urdindu be ez da eitten ta ez da alperrik galtzen.
-Kuriousue. Eta zer, trapu baten edo...?
-Ez, ez, ez, ezebez. Ein holantxek kurutzie ta kendu kurruskue, ta jaurti ezer ez daguen lekura. Haraxe bota ta hantxe. Oniño nere armaidxuen egongo da, pentsetan dot, ogidxe, Gabonetatik, igezko Gabonetakue.
-Igezkue?
-E?
-Igezkue?
-Bai, Gabonetatik, igezko [...]. Zegatik gero hori ogidxori eitten dozu berakatz zopie ein ta haraxe bota.
-Ta zer egon biher da, urtebete gordeta, ala edozein momentuen...?
-Nik gordeta eukitten dot ta gero, ba, Gabonak aillegetan dienien...
-Bai, atzera...
-Atzera etara. Kurruskue gordeta. Eta kurruskutxo bat izeten da, e. Nik kurruskutxo bat gordeten dot.
-Honek ez dauko...
-[...] etxien ta bota ta. Gure aittek hori ein barik... errosaridxue errezetan ta Gabon egunien errosaridxue errezau ta haxe kurutzie ein, bazkaitten edo afaitten hasi baiño lehenago, ta ha gorde. Ta ez da urdintzen.
-Ez, e? Kuriosue.
-Siketu bai, baiña oniño, Gabon bezperetan neuk ikusi neban hortxe. Eta beti gordeten dot, e, beti. Horixe kostunbriori ez jata kentzen.

32. Aitak abarkak nola egiten zituen

- **Erref:** BRZ-008/019
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:37:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Neguan etxean egindako galtzerdiak eta gomazko abarkak erabiltzen zituzten. Garai batean aitak etxean egiten zituen larruzko abarkak. Behia hiltzegira eramaten zuenean, pixka bat ordaindu eta larrua ekartzen zuen etxera. Ganbaran sikatu eta josi. Nola egiten zituen abarkak. Egurrezko oinetakoak ere ezagutu zituen.</p>

Transkripzioa

-Neguen ze zapata klase ebaltzen zeduen? Abarkak?
-Abarkak! Galtzak etxien eintze.
-Baiña abarkak busti, ezta? Euridzegaz eta...
-Ta gero gomazko abarkak! Lehenengo erabiltzen genduzen etxien eintze zeraaz, narruaaz, Behidze hiltzen zaien edo, ezta? konparaziñoan, hamen behidze ekarten eban aittek mataderorantz, ezta? Eta haren narrue, ba, pagau eitten eban zeozer. Ta ha ekarri etxera ta siketu, jositte kamaran, josi, ta siketu, ta gero etxien ein abarkak.
-Eta busti ez, euridzegaz?
-Bai, euridzegaz, bai, busti, busti, bai, baiña, ba...
-Eta holako egurrezko zapatarik sekula ez dozu erabili?
-Bai, zankuluek, txankuluek.
-Eta zer, abarkie bera barruen sartu, ala...?
-Ez, ba, abarkakin ibiltzen gintzezanien, ba, abarkie eitten... konparaziñoan, eurek eitten... gure aittek eitten eban, esango dotsut ba, hara, konparaziñoan...
-Zelan?
-Hau... hori... hau holan eitten otsen, joskurie, aitzen dozu? Hamen jo, ta hamendik lotu, zintakin josi, ta eitten otsen joskurie. Ta gero hau be gehitxuago emon ta, ba, emoten otsen honaiño ta hori dana. Gero, hamen, ein zuluek zeraaz, untze bategaz, apropos einteko untze bategaz, ta gero, ba, hortik hari zera pasau, ilobalie pasau hortik ta hamendik, ilobalie pasau, ta gero juntau, narruari berari. Sartzen jakon ure, e? Baiña... Gero, gure nebak be [...] Martzeliño eta [...] eta horrek gero izen zien horrek, zeroi. Aitte bizi zan artien haxe. Penie aitte hil zaien, kitto. Horrek gauzok ahaztu zien. Nebak ez [euker]... gazterik hasi zien hamen biherrien ta.

33. Lehen otordu guztietan errezoak

- **Erref:** BRZ-008/021
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:40:44. **Bukatu:** 00:42:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Goizean jaiki eta sukaldara joandakoan, erreztatu egiten zuten gosaldutik aurretik. Bazkalorduan, bakoitzak bere plateretik barik lapikotik jaten zuten. Orduan ere errezoak. Oraindik ere batzuetan erreztatzen du oherakoan. Batzuetan sinisten du Jaungoikoarengan, baina beste batzuetan zalantzak izaten ditu.</p>

Transkripzioa

-Besteik ez eguen ta...
-Jagi ogetik ta nik gure aitte ikusten neban: “ala, danak ezkatzera!”. Danok ezkatzera. “Aittaren ta Semiaren”, ta hiru “Abe maridze”, ta “Aitte San Antonio [gloriosue, San Isidro] ez dakit zer. Ta armosau baiño lehenago haxe. Etxera juen ta atzera danak bezkaitzen ta, total, patel haundi baten, bakotzak beran platera be ez, kazuela haundi baten “durrrrun” bota zaratie eitten daben babak, ta jan handixek babak, ta lehenengo: “Aitte San Antonio gloriosue, geure ganauengaittik, geure jun-etorridzegaittik, aitte

gurie, ta San Isidro gloriosue, [...] ta geure difuntuengaittik eta, ba, errezetan eban. [...]

-Oin zuk errezetan dozu?

-Ogera jueten nazenien, sarritten aburridute egoten naz ta! En fin, zer eingo dotsezu ba? Batzutan siñesten dot Jangoikuen. Nik elixara juten nazen egunien esaten dot pekatu mortala ein dotela, e? Eta beste batzutan esaten dot: zer! abadiak esaten dabena barriketan, barriketan, barriketan, barriketan pasetan dabie [...] ta kittu, besterik ezer be ez. Batzutan siñesten dot eta beste batzutan, ba, ez dakit nik zer esan be!

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com